

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntzko Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
Viceconsejería de Educación
Inspección de Educación

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2017-2018 IKASTURTEA

HEZKUNTZA IKUSKARITZA EAE





1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren Planak honela defini ditzakegu: Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetan eta administrazioko beste toki batzuetan egin beharreko esku-hartzeak gauzatzeko bideak. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa jasotzen dute.

Ikastetxeetan esku hartuz, irakaskuntza kalitatekoa eta zuzentasunean oinarritutakoa izateko hezkuntza-legeriak ematen dion eskuduntzaz baliatzen da hezkuntza Ikuskaritza.

Horretarako, haren jarduerak ez dira araudia betetzen den ala ez ikuskatzera mugatu behar; laguntza eta aholkularitza eman behar dizkie hezkuntza-proiektuak aurrera eramateko orduan ikastetxeei; autoebaluazio-prozesuak sustatu behar ditu eta kanpo-ebaluazioaren prozesuetan parte hartu behar du. Horrela ikastetxeek ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzuna ematea errazten du, ikasteko prozesuetan arrakasta errazago lortzeko eta hezkuntza-emaitzak hobetzeko.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten diren errekerimendu eta eskaeretan lankidetzan aritzea eta legezko bideak erabiliz eskatzen zaizkion txostenak ematea da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean sartzen diren urteko planen bidez antolatzen ditu bere esku-hartzeak. Ildo horretan, 2017-2018ko Urteko Plan honek 2017-2020ko Hirurteko Plan Orokorren lehen ikasturtea hartzen du. Urteko Plan honen 3. eta 4. ataletan jasota agertzen dira Hirurteko Plan Orokorren helburuak aurrera eramateko esku hartzeko oinarritzko ildoak.

Urteko Planaren jarduerak, Hirurteko Plan Orokorren hartutako ikuspegitik, zeinak bere helburuak xedean adierazitakoetara bideratzen dituen, honako prozesu hauetan biltzen dira:

- Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzera bideratutako PROZESUA
- Eskubide eta betebeharren bermea den araubidearen kontrolerako PROZESUA
- Biziketza. Gatazkak konpontzeko PROZESUA.
- Sistemaren helburuak. Programen jarraipenerako PROZESUA.

Urteko Plana egiteko, kontuan hartu dira Hezkuntzako hainbat sailburuordetzak eta zuzendaritzak eginiko eskaerak, Lurralde arteko Koordinaziorako Batzordeak Zonalde Burutzekin egindako balorazioak, gogoeta estrategikoaren eta aurreko ikasturtean eginiko jardueren ondorioak, bai eta Ikuskaritzaren jardueren hartzailak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkestak emaitzak eta egindako auditorien emaitzak.

2017-20178 Urteko Planak garatzeko orduan ahalik eta eraginkorrena izatearen eta jarduteko irizpideak batzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu behar du. Jarduerak lurraldean eta zonaldean banatu beharko dira, kontuan hartuta lan-kargen arteko oreka eta eginkizunak gauzatzeko izan beharreko eraginkortasuna.

Ikuskarien prestakuntza eta gaurkotzea funtsezkoak dira, bete beharreko funtzioak eraginkortasunez garatzeko orduan. Ildo horretatik, ahaleginak areagotzen jarraituko da, lana bideratu eta martxan jartzeko irizpideak bateratze aldera. Garrantzi handieneko jardueri dagokienez, prozedurak ezarriko dira nola garatzen ari diren ezagutzeko eta hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza premiak zehazteko.

Azkenik, Hezkuntza Ikuskaritzak, kudeaketa-sistema mantentzeko, ISO ziurtagiria UNE-ENISO 9001:2008 arauaren arabera berritu du 2016-2017ko ikasturtean, eta sistema UNE-EN ISO9001:2015 arauan ezarritako baldintzetara egokituko du 2017-2018ko ikasturtean.

2.- KALITATEAREN POLITIKA

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen politika, zeina Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek 2006-2007ko ikasturtean adostutako UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza den, ondoren adierazten dena da:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzaren ustez, bere lana beharrezkoa da hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitatez funtzionatzeko.

Horregatik premiazkoa da eman zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzafuntzioetan jasotako jarduerak behar bezala kudeatzea, eta ikuskari bakoitzak kontuan hartu behar du eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona segurtatzeko eta Hezkuntza komunitatea, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak ahalik eta gustuen egon daitezen.

Hezkuntza Ikuskaritzan lanean diharduten langileak (ikuskariak eta administrazioako langileak) dira haren aktiborik nagusiak. Ikuskaritza Nagusiak eta burutzek, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, taldeanaren eta emaitzen ebaluazioaren printzipio antolatzaileen arabera, ahaleginduko dira langileak motibatuta eta pozik egon daitezen, haien giza garapena eta garapen profesionalaren alde lan eginez.

Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du antolaketa eraginkor bat izateko konpromisoa, ondorengo ezaugarriak izango dituena: ikuskaritzako profesionalak parte hartuko dute eskainitako jarduera eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan, prozesuak etengabe hobetzerantz bideratuko dira, eta Hezkuntza Komunitatea, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritza bera ongi senti daitezen behar diren gestioak egingo ditu.

Antolaketaren helburuak betetzen direla segurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskaritzaren jarduera gidatu behar duten estrategiak kontuan hartzen dituena. Hauek dira:

- Erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzutea: ikastetxeei, ikasleei, gurasoei eta Hezkuntza Administrazioaren arduradunei, beren funtzioetan jarduten dutenean.
- Arreta hobea ematea hezkuntza-erkidegoko kideek egindako eskaerei.
- Hezkuntza Ikuskaritzari eta haren funtzioen eremuko jarduerari eragiten dieten legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
- Era planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea.
- Behar diren planen bidez Ikuskaritzako langileria guztiaren etengabeko prestakuntzari eta parte-hartze aktiboari laguntza ematea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne- eta kanpo-komunikazioaren bideak hobetzea.
- Behar den malgutasunaz jokatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerari dagozkien eskakizun eta premietara egokitzeko.
- Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatzea, prozesu horiek eraginkorragoak izan daitezen.

Kalitate-politika horrek behar den erreferentzia-markoa ematen du, Ikuskaritzaren jardueran nagusi diren eta kalitate-helburuetan zehazten diren estrategiak ezarri eta berrikusteko.

Hezkuntza Ikuskaritzak behar diren bideak ezarri ditu, politika hori langileria guztiak ezagutu eta uler dezan, eta Sistema berrikustean, aldian-aldian berrikusten dela bermatzen du.

2017-2018 ikasturtean, UNE-EN ISO 9001:2015 arau berriari egokitzeko, kalitate-politika berrikusi eta eguneratuko da.

3.- HELBURUAK

Urteko Plana eta bertan ezartzen diren jarduerak 2017-2020ko Hirurteko Plan Orokorraren helburuak betetzera zuzenduta daude eta esku hartzeko plan horretan definitzen diren oinarritzko ildoekin bat datoz (Hirurteko Plan Orokorraren I. eranskina).

Ondoren jarduera horiek, Hirurteko Plan Orokorraren helburuak eta esku hartzeko lotutako ildoak jasota agertzen dira.

1. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	2017-2018 IKASTURTEKO JARDUERAK
Prozedurak ezartzea ikuskaritzaren parte hartzea hobetzeko arlo hauetan: - Hezkuntza Komunitateko kideek indarreko araudiak onartzen dituen eskubide eta betebeharrak gauzatzeko dituztelako bermea - eskola-eremuko bizikidetzaren hobetzea, esku-hartze kritiko eta aktiboaren bidez.	Arau-kontrolerako jarduerak	Irakasleriaren prestakuntzarako ordutegia betetzea Batxilergoko eskola-egutegia Dokumentazio akademikoa Arau-hausteen jarraipena Kanpoko proben kontrola.
	Eskola-giroa	Bizikidetzaren ezarpenaren jarraipena Bizikidetzaren planen azterketa (ikastetxe-lagina) Eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena

2. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	2017-2018 IKASTURTEKO JARDUERAK
Ikastetxeei proposamenak eskaintzea antolakuntza eta funtzionamendua, programak, irakasleen lana, zuzendariaren lana eta bestelako elementuak hobetzeko eta kalitatezko hezkuntza-sistema lortzea sustatzeko.	Ikastetxearen beharren arabera esku-hartzea	Aurreko ikasturteko koadernoan jasotako hobekuntza-proposamenen jarraipena
	Ebaluazioaren kultura sustatzea	IUP-memoriaren azterketa. (finkatutako irizpideen arabera lagina) Eskola-eremuko : eskola-eremuko buruzko hausnarketa eta azterketa bultzatzea Kanpo- ebaluazioetako elkarrizketa. Hausnarketa eta azterketa sustatzea Hezkuntzan Kalitatea sareko ikastetxeekiko elkarlana
	Pertsonen ebaluazioa: Irakaslearen gaitasunen garapena sustatzen laguntzen dutenaldaketa metodologikoak ezartzea: programazioak: (plangintza, metodologia eta irakaslearen ebaluazioa)	Zuzendaritza-funtzioa: zuzendariak aukeratzeko prozesua. Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera ebaluazioa. Proiekturik gabeko zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak sustatzea. Irakaslana: Irakasle-profila prestatu. (Erasmus+etik aurrera) Irakaskuntzako LEPetatik eratorritako praktikaldien ebaluazioa.
	Irakasleriaren gaitasunen garapena sustatzeko aldaketa metodologikoak ezartzen laguntzea (plangintza, metodologia eta irakaslearen ebaluazioa)	Irakasleriaren gaitasunak garatzera bideratutako ikastetxeetan eginiko aldaketen jarraipena (Ikastetxe-lagina)

3. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOAK	2017-2018 IKASTURTEKO JARDUERAK
Hezkuntza Administrazioari jakinarazi, ikastetxeetan eginiko ikuskapenen ondoriozko proposamen gisako balorazio tekniko bidez, zein izan den sistemaren ebaluazio parte-hartzea eta beste erakunde eta entitate batzuekin izandako lankidetzak	Saileko programaen garapena eta emaitzak (Hamaika Esku, Hauspoa, Dual, Ethazi, IGF, Irakurle, Bizikasi, etab.)	Programen garapenaren jarraipena. Horren ondoriozko administrazioarentzako txostenak.
	Beste lankidetzak- jarduerak batzuk: esleipenak, PEX Bach, Baremazioa, EAU, etab.	Lankidetzak-jarduerak gauzatzea.

4. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOAK	2017-2018 IKASTURTEKO JARDUERAK
.- Barne-antolaketa, hezkuntza-ikuskarien prestakuntza eta haien lanaren garapena hobetzea, hizkuntza-normalkuntza, kudeaketa, berrikuntza, partaidetza eta antolaketaren ebaluazioari buruzko proiektuak sustatuz, Hezkuntza Ikuskaritzak burutzen dituen jardueren hartzaileen, barne zein kanpokoekin, beharrei behar bezala erantzuteko	Hrtzaileekiko erantzunaren hobekuntza: txostenak, bisitaldiak, etab.	Ikuskaritzaren txostenak eta bisitaldiak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea, eta haiek berrikusi eta hobetzeko prestakuntzaren plangintza egitea
	Euskararen erabilera-planaren jarduerak esanguratsuenen garapena	Euskararen erabilera-plana garatu eta jarraitzea Ikuskaritzak-prozesuetan sortutako dokumentuen hizkuntza eguneratzea IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskaintzen dituen aukerak erabiltzea
	Ikuskaritzaren antolaketa	Barne-komunikazioa: barne-komunikazioaren prozesua berrikustea Kudeaketa-sistemaren eguneratzea: Ikuskaritzaren kudeaketa-sistema UNE EN ISO 9001:2015 arau berrira egokitzea Kudeaketa-sistemaren funtsezko azpiprozesuak aukertzea Funtsezko azpiprozesuen arrisku- azterketa Prozesuak eta azpiprozesuak berrantolatzea, eginiko estrategia-hausnarketaren arabera Ikuskaritzari dagozkion lankidetzak-jarduerak zehaztea
	Ikuskari-lanaren ebaluazioa	Ikuskaritzako LEPen deialdia Plaza hutsak betetzeko deialdiak eta hautagaien zerrenda.
	Bestelako erakundeetako lankidetzak eta Europako eremuan sakontzea	Zerbitzu-eginkizunetako ikuskariei prozedura ezartzea Ikuskari-lanaren ahalmen-matriza eguneratzea
	Berrikuntzaren zaintza	Beste ikuskaritzak eta erakunde batzuekiko lankidetzak-jarduerak garatzea Ekitaldi nazional zein nazioartekoetan eta Erasmus + proiektuetan parte hartzea
		Ekitaldeetan parte hartzearen ondorioz jasotako informazioaren azterketa, erabakiak hartzen laguntzeko Antzeko ezaugarriak dituzten erakundeetako konparazioak ezartzea. Heldu beharreko arrisku eta aukerak zehaztea

4.- 2017-2018KO IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Aurreikusitako hirurteko helburuak lortzeko lagungarri diren urteko jarduerak sartzen diren erreferentzia-markoa dira 2017-2020ko Hirurteko Plan Orokorraren esku-hartzearen oinarrizko ildoak.

2017/2018ko ikasturtean esku hartzeko oinarrizko ildoak bi multzotan aurkezten dira

1. multzoa: ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoak.
2. multzoa: Ikuskaritza Zerbitzuaren beraren hobekuntza eta garapenari lotutakoak.

1. multzoa: esku hartzeko oinarrizko ildoak, ikastetxeak ikuskatzeari lotutakoak.

Hezkuntza Ikuskaritzak, bere esku-hartzeen bidez, hezkuntzarako eskubidea bermatzen eraginkortasunez lagundu behar du eta, halaber, ikastetxeek kalitateko erantzun bat, ikasleek beren ikasteko prozesuetan eta garapen pertsonal, sozial, emozional eta profesionalean arrakasta izan dezaten, eskaintzea sustatu behar du.

Bestalde, ez dugu Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa ahaztu behar, ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren egoeraz Administrazioari informazioa eta aholkularitza ematen dizkion eragilea den aldetik, hezkuntza-sistema hobetzeko erabakiak errazago hartze aldera.

Horretarako, ikastetxeetan era proaktiboan esku hartzeko eredu bat aukeratu du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak; eredu horretan, ikuspegi global eta sistemiko batetik abiatuz, ikastetxeetan egiten diren jarduera guztiak integratzen dira eta elkarren artean dute harremana. Hori guztia, ikastetxeen ezaugarriak, funtzionamendua eta jarduera ezagutze aldera, zeinaren bidez, aztertu eta baloratu ondoren, hezkuntza-komunitateari eskaintzen dioten hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko balio-proposamenak egin ahal izango dituzten.

Esku hartzeko era horrek Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztiei eragiten die; izan ere, hirurteko eta urteko planetan planteatutako helburuen arabera gauzatu behar dira jarduera horiek.

Marko horretan, esku hartzeko ildo batzuk definitzen dira urtero, eta haien garapenak ikastetxearen elementu guztien integrazioa, eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak izan litezkeen datuak jasotzea, datuak erkidego mailan ustiatzea eta, izan beharreko malgutasuna kontuan hartuta, Ikuskaritzaren jardueren orientabidea eta homogeneizazioa errazten dituzten tresnak ditu oinarri.

Tresna horien artean, besteak beste, hauek ditugu aipagarri:

a) Ikastetxea bisitatzea

Ikuskariaren bisitak duen garrantzia aitortzen da, ikastetxe baten errealitatea alderdi guztietan, antolaketatik alderdi pedagogikoetara, ikuskatu eta ezagutzeko tresna den aldetik; horiek horrela, ikastetxeetan esku hartzeko lan egiteko oinarrizko era da bisita. Ikuskariaren presentziak ikastetxearen errealitatea zuzenean ezagutzeko premia eta garrantziarekin izan beharko dute zerikusia, bisita horren ondorioz ikastetxeak hobeto funtzionatzeko lagungarri izango diren proposamen konkretuak egiteko. Bisitak behar bezala planifikatzea helburuak eraginkortasunez lortzeko izango da lagungarri.

b) Ikastetxearen koadernoak

Tresna hau elementu dinamikoa da eta erraztasunak ematen dizkio ikuskari bakoitzari ikastetxean egin beharreko lana planifikatzeko orduan, baita ikastetxean egiten den jardueraren jarraipena egiteko ere.

Ikastetxe bakoitzaren funtzionamenduari eta Ikuskaritzaren jarduera esanguratsuenei lotutako informazio nabarmena jasoko da, baita Urteko Planean definitutako esku hartzearen ildo bakoitza garatzearen ondoriozko alderdi kualitatibo eta deskriptiboak ere. Ikastetxearen koadernoak ikastetxeak kurtso bakoitzean egiten duen jarduera eta ikastetxe horren funtzionamendua azaldu beharko ditu eta, etorkizunari begira, ezagutu edo lantzeko premiazkoak edo interesgarriak izan daitezkeen alderdiak sartuko ditu.

Batez ere, erreferentzia-ikuskarriaren jardueren eta jarduera horien bidez eskuratutako ikastetxearen ezagutzaren ondoriozko balorazio, ondorio eta proposamenak azpimarratuko dira.

Balorazio, ondorio eta proposamen horiek erreferentzia izango dira ikastetxean egin beharreko lanaren helburuak planifikatzeko orduan. Ildo horretatik, idazpuruak "IKUSKARITZA " epigrafea duen koadernoaren atala haren ardatza da, hausnartzeko eta ikuskarriak ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatzeko espazio bat ematen baititu, eta bera delako gainerako atalei izateko arrazoia ematen diena; izan ere, Ikuskaritzaren jardueren egiazko balio erantsia diren ondorio, balorazio eta proposamenak jasotzen ditu.

Horiek guztiek ikastetxeen egoerari eta premiei buruzko datuak emango dituzte eta, beraz, funtsezko erreferentzia izango dira, Ikuskaritzaren Urteko Planak egiteko eta Hezkuntza Administrazioari aholkularitza emateko orduan.

a) Hiruhilekoko jardueren eta galdekizunen formularioak. Aukera ematen dute hezkuntza-komunitateari buruzko datuak bildu eta ustiatzeko. Ikasturte honetan jasoko diren gaiak V92 aplikazioaren espazioan kokatutako agiri batean zehazten dira: Ikastetxeak ikuskatzea. Ikastetxearen koadernoak.

b) Ikuskariaren jarduera erraztera bideratutako jarraibide, argibide eta ereduak. Behar den AZn edota barne orrian kokatuko dira.

Ikuskaritzaren jardueraren sistematizazioa bera, kalitatea kudeatzeko sistemaren bidez, ikuskatzeko eredu horren zerbitzuan dago eta haren garapena errazten du, ikastetxearen inguruko jarduera guztiak integratzeko aukera ematen baitu, baita jarduera horien jarraipena eta ebaluazioa ere.

Jarraipen eta ebaluazio horiek, batez ere, zerbitzua koordinatzeko egituren, sistemaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnen, erabiltzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko prozesuen eta ikastetxearen koadernoaren "IKUSKARITZA " atalaren bidez egingo dira eta jasotako datuen ondorioz sortuko diren komunitatearen txosten eta memorietan jasota agertuko dira.

Marko horretan, ondorengoak dira 2017-2018ko ikasturtean jarduteko oinarritzko ildoak.

HELBURUAK GARATZEKO, ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Hirurteko Plan Orokor honen esku hartzeko oinarrizko ildoek osatzen dute aurreko atalean aipatutako helburuak lortzeko beharrezko jardueren-markoa.

Hirurteko Plan Orokorraren esku hartzeko oinarrizko ildoekin loturiko hiru ikasturteetako jarduerak Plan honen I eranskinean azaltzen dira.

Segidan, helburu orokorren eta haiei atxikitako oinarrizko ildoen arteko harremana aurkezten da , baita ildo bakoitzaren edukiari buruzko deskribapen laburra ere.

HELBURU OROKORRA 1	1. Ikuskaritzak honako arlo hauetan duen eragina hobetzeko prozedurak ezartzea: - Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen indarrean dagoen araudiak onartutako eskubide eta betebeharrak betetzen dituztela bermatzea. - Lankidetzaren hobetzea eskola-eremuan, esku-hartze kritiko eta aktiboa baliatuz.
ATXIKITAKO OINARRIZKO ILDOAK	3.1. Araudia kontrolatzeko jarduerak 3.2. Eskola-giroaren jarraipena.

3.1. Araudia kontrolatzeko jarduerak

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen beren eskubide eta betebeharrak gauzatzen dituztela bermatzeko, Hezkuntza Ikuskaritza honek honako kontrol-jarduerak hauek egiten jarraituko du:

- Irakasleen prestakuntza-ordutegia betetzea.
- Batxilergoko eskola-egutegia.
- Dokumentazio akademikoa
- Arau-hausteen jarraipena.
- Kanpoko proben kontrola
-

Horrez gain, egintako jardueren emaitzak aztertuko dira, haien eraginkortasunaren hobekuntza sustatuko duten ondorioak lortzeko.

3.2. Eskola-giroaren jarraipena: hezkuntza-komunitatearen eskubide eta betebeharren erabilpena bermatzeko bizikidetzaren kudeaketa.

Hezkuntza Ikuskaritzak jarraituko ditu eskola-jazarpen kasuak eta baita bizikidetzaren aurkako beste edozein jokabideren azalpena ere.

Ikasturte honetan jarduerak hauek gauzatuko dira:

- Eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena, eta ikastetxeetako bizikidetzaren kudeaketa.
- Sailburuordetzak sustatutako "Bizikasi" planaren hedapenaren jarraipena gauzatuko da. Horiek horrela, aurreikusita dago bizikidetzaren eta hezkidetzaren planen jarraipena egitea, eta baita haiek nola abiarazten diren ikastetxeetan ere jarraitzea.
- Prebentzio-protokoloaren ezarpenerako lankidetzaren eta 2016ko azaroaren 15ean argitaratutako ustezko babes eza eta tratatu txarren, erasoaren eta hurrekiko eta nerabeekiko sexu-abusuen aurreko egoeretan esku-hartzea.

HELBURU OROKORRA 2	2. Ikastetxeei beren antolaketaren, funtzionamenduaren, programen, irakasleen lanaren, zuzendaritzaren-lanaren eta bestelako elementuen hobekuntzarako proposamenak eskaini behar zaizkie, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortze aldera.
ATXIKITAKO OINARRIZKO ILDOAK	3.3. Ikastetxeen beharren arabera esku-hartzea. 3.4. Ebaluazioaren kultura sustatzea ikastetxeetan. 3.5. Pertsoen ebaluazioa. 3.6. Ikastetxeetan metodologia-aldaketak ezartzeko esku-hartzea.

3.3. Ikastetxearen beharren arabera esku-hartzea

Barne hartzen ditu, bai erreferentzia-ikuskariak hautematen dituen esku hartzeko premiarik handiena duten alderdien banan-banakako jarraipena, bai izaera orokorragoko beste batzuk, ikastetxe batzuei eragiten dietenak eta antzemandako premiekin edo zailtasunekin erlazionaturik egon daitezkeenak edo irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren edo ikastetxeen funtzionamenduaren zenbait alderdiren hobekuntza gerta dadin lagunduko dutenak.

Ido horretan, jarduera hauek ditugu:

- Erreferentzia-ikastetxeetan esku hartzeko helburuak planifikatzea eta ikastetxea hobetzen lagunduko duten proposamenak eta ikuskaritzari egindako jarripen-proposamenak bideratzea.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, erreferentzia-ikuskari bakoitzak ikastetxeko jardura planifikatuko du eta esku hartzeko helburuak zehaztuko ditu, horretarako, aurreko ikasturteko koadernoan adiarazitako hobekuntza-proposamenak hartuko ditu kontuan. Ikasturtea bukatutakoan, helburu horiek bete diren balioetsiko du, eta, hurrengo ikasturteari begira, ikuskaritzaren inguruko jarraipenari buruzko beste gomendio batzuk egingo ditu. Bestalde, urteko ikuskapen-jardueran jasotako infomazioa aztertzearen eta balioestearen ondorioz ikastetxeari hobekuntza-proposamenak egingo dizkio.

- Ikastetxeak *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiei buruzko azterketaren* alderdiren batean esku-hartzea, erreferentzia-ikuskariak hala erabakita, alderdi horiek ikastetxeak hobetzen nabarmen laguntzen dute (adibidez, irakasleen formakuntza, ikasleak ebaluatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa)

3.4. Ikastetxeetan ebaluazioaren kultura sustatzea

Gai honi dagokionez, 2017-18 ikasturtean honako jardura hauek egingo dira:

- Ikastetxeen ebaluazioaren emaitzak ezagututa, ikuskariak zuzendaritza-taldearekin bilduko dira, emaitzak aztertzeko eta balioztatzeko, haien inguruko hausnarketa eginez, barruko eta kanpoko ebaluzio-prozesuen balioa azpimarratuz, ikastetxean barneko hezkuntza-erantzuna hobetzeko.

- Ikastetxeetako lagin baten memoria eta urteko plana aztertzea, kanpoko, barneko eta beste ebaluazioetan (2016-2017 ikasturtean egindako ebaluazio-probak, 2015 Pisa Ebaluazioa) izandako emaitzen azterketaren hobetu beharreko helburuak azpimarratuz.

- Ikastetxeei egindako hobekuntza-proposamenen jarraipena urteko planaren, memoriaren eta zuzendaritza-funzioaren ebaluazioaren balorazio-txostenetan.

- Euskalit Sistemaren ebaluazioetan ikuskaritzak parte hartzea errazteko prozesuei ekitea, ebaluazio horietan Kalitatea Hezkuntzan ikastetxeek parte hartzea aurreikusten da.

3.5. Pertsonen ebaluazioa

3.5.1. Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa ikastetxeak hobetzen laguntzeko

Hezkuntza Ikuskaritzak zortzi ikasturte egin ditu zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa garatzen, funtzio horren jarduera hobetzen laguntzeko helburuarekin, ebaluazio-prozesuaren aginduak oinarri hartuta.

Ikasturte honetarako aurreikusitako eginkizunak hauek dira:

- Proiektuaren helbideak ebaluatzea, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera (4., 8., 1. eta 2. ebaluazio-urtea).
- Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuei bideratutako prozesuaren diseinatzea.
- Proiekturik gabeko zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak bultzatzea.
- Ebaluatutako zuzendaritzetako hobekuntza-prozesu horren eraginari buruzko emaitzen txostena egitea.
- Izandako esperientziaren baloraziotik hasita prozedura berrikustea.
- Ebaluazioaren hirugarren aldiren diseinua egitea, aldi hori 2018-2019 ikasturtean ezartzen hasiko da.
- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazio-arauaren eguneratze-prozesua hasia.
- Zuzendariak hautatzeko prozesuan esku hartzea, ziur aski 2017-2018 ikasturtean egingo da.

3.5.2. Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa hura hobetzen laguntzeko

Ikasturte honetan, honako jarduera hauek egingo dira:

- Irakaslearen profila egitea, irakasleen ebaluazioarekin eta langileen hautaketarekin lotutako alderdi orokorreki eta/edo partzialei helduko diena prozesu guztietako erreferentzia izan dadin.
- Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioaren eredu bat diseinatzea.
- Praktikaldiak ebaluatzea, irakaskuntzako EPEen ondorioz, *ikasgela bisitatzea* eta *autoebaluazioa sustatzea* jardueretan sakonduz.
- Unibertsitateekin irakaslen hasierako prestakuntza eta irakasleen prestakuntzan eskumena duten erakundeekin etengabeko prestakuntza sustatzea.

3.6. Ikastetxeetan metodologia-aldaketak ezartzen laguntzea

Gaitasunen ikuspegia ikasgelara eramatean, metodologia aldaketa gertatzen da, horrek aldizka atazaka lan egitea eskatzen du, jakintzak mobilizatu beharreko baliabideetat hartzen ditu, ikastea arazoak konpontzera edo proiektuak egitera bideratzen da, ebaluazio modu berriak sortzen dira, etab. Irakasleak bideratzailearen edo bitartekariaren, gidaren edo laguntzailearen rola hartzen du; horretarako, *atazak* edo ikas-egoerak diseinatzeko estrategia intelektualak mobilizatzeko, ezaguerak aplikatzeko eta ikasleen jarduera bultzatzeko gauza izan behar du irakasleak.

Horren harira, 2017-18 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzak honako hau egingo du:

- Prestakuntza orokorreko ekimenean, ikastetxeetan proposamen metodologiko berrien ezarpenaren jarraipen-prozesua hasiko du. Jarduera horrekin lotutako informazioarekin, ikastetxeei eta Sailari proposamendak luzatuko zaizkio.

HELBURU OROKORRA 3	3. Hezkuntza administrazioari informatzea, proposatutako balorazio teknikoan bidez, ikastetxeetan egindako ikuskapenetan oinarrituta, sistemaren ebaluazioei buruz eta beste erakundeekin eta entitateekin izan duten lankidetzari buruz.
OINARRIZKO ILDO ELKARTUAK	3.7. Saileko programen garapenak eta emaitzak jarraitzea. 3.8. Beste lankidetzeta-jarduera batzuk.

3.7. Saileko programen garapenak eta emaitzak jarraitzea

Hezkuntza Ikuskaritzak Hezkuntza Sailak eraturako programetako jarraipena egingo du eta haien ebaluazioan hartuko du parte, programa horietan ezarritako helburuen betetze-mailari buruzko ondorioen ekarpena egiteko eta erabakiak hartzeko informazio garrantzitsua gehitzeko.

Proiektu hauen jarripena egingo de:

- Prestakuntza-ekimen globala
 - Genero-indarkeriaren prebentzioa eta hezikidetzeta
 - Hauspoa Programa
 - Hamaika Esku Programa
 - Bizikazi Programa
 - Ethazi Programa
 - Dual Programa
 - Irakurle Programa
 - Eta abar
- Horren ondorioz, administrazioari igorritako txostenak egingo dira.

3.8. Lankidetzan egindako beste jarduera batzuk

Hezkuntza Ikuskaritzak Hezkuntza Sailak eraturako zenbait jardueretan jarraituko du parte hartzen; adibidez, irakasleen esleipen-prozesuetan, enplegu publikoa eskaintzeko epaimahaietan, batxilergoko sari barezietan, lekualdatze lehiaketei dagozkien baremazioetan, kanpoko probetako kontrolatan, eta abarretan.

HELBURU OROKORRA 4	4. Barneko antolaketa, hezkuntzako ikuskaritza eta haren jarduera hobetzea, hizkuntza normalkuntzako, kudeaketako, berrikuntzako, parte hartzeko eta erakundea ebaluatzeko prozesuak bultzatzea hezkuntza ikuskaritzako erabiltzaileen premiei, barnekoei zein kanpokoei, modu eraginkorren erantzuteko.
OINARRIZKO ILDO ELKARTUAK	3.9. Hartzaileek jasoko duten erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak 3.10. Euskara erabilera plana 3.11. Ikuskaritza antolatzea 3.12. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea 3.13. Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta eurpear dimentsioan sakontzea 3.14. Berrikuntza zaintzea

2.multzoa: Ikuskaritza zerbitzuaren hobekuntza eta garapenarekin erlazionatutakoak.

3.9. Hartzaileek jasoko duten erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak

Bisiten eta txostenen kalitateak era zuzenean laguntzen dute ikastetxeei eta beste hartzaileei ematen zaien erantzuna hobetzen.

Jardunbide egokiei eta hobetzeko alderdiei buruzko ondorioak lortzeko honako jarduera hauek egingo dira:

- Ikuskaritza-bisiten eta txostenen balorazio-prozadurak diseinatzea eta ezartzea.
- Egindako txostenen lagin bat aztertzea.

- 2016-2017 ikasturteko inkestaren emaitza oinarri hartuta, *Ikastetxea bisitatzeari* dagokion dokumentazioa berriz aztertuko da.

3.10. Euskararen erabilera plana

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilerearen Normalizazio Plan Orokorrean (2013-2017) aurreikusitakora komunikazio telematikoak, ahozkoak eta idatzizkoak egokitzeko, baita garatu daitezkeen ondorengo Planetara, honako hauek beharrezkoak izango dira:

- Euskararen erabilera-plana garatu eta jarraitzea
- Ikuskaritza-prozesuetan sortutako dokumentuen hizkuntza eguneratzea
- IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskaintzen dituen aukerak erabiltzea
- Euskararen Erabilera-planean aurreikusitako kalitatezko komunikazioak sustatzea, testu zuzen, egoki eta argiak erabiliz.

3.11. Ikuskaritzaren antolaketa

2016-17 ikastaroan egindako gogoeta estrategikotik, barne- eta kanpo- auditoretzetatik, eta urteko memorian jasotako balorazioetatik ateratako ondorioak kontuan hartuta, ondoko lan hauek egingo dira:

- Antolaketa ereduaren berrikustea hastea, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko.
- Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan ikuskarieren parte-hartzea bultzatzeko prozedurak ezartzea.
- Zonaldeetan jardueren arduradunen lidergoa bultzatzea, lan-taldearen egituraren eguneratzearen bitartez.
 - Egitura berriak ondoko ezaugarri hauek izango ditu:
 - Lan-taldeek bi mailatan jardungo dute: azpiprozesuko lurralde arteko taldea eta lurralde taldeak.
 - Azpiprozesuko lurralde arteko taldea: Ikuskaritza Nagusiko erreferentzia-pertsona batek eta lurralde bakoitzeko ordezkari batek osatuko dute. Taldearen kide bat arduradun gisa arituko da.
 - Azpiprozesuko lurralde taldeak: zonalde bakoitzeko arduradunek osatuko dute. Horietako bat lurralde arteko taldearen kidea izango da eta azpiprozesuaren arduraduna izango da lurraldean.
- Taldeetako lurralde eta zonaldeetako arduradunen arteko koordinazioa sendotzeko prozedurak ezartzea. Arduradun horiek beraien zonaldeetan egin behar diren jardueren inguruko koordinazio eta prestakuntza lanak garatuko dituzte. Halaber, Zonalde Burutzeekin lankidetzan arituko dira zonalde horretan azpiprozesu bakoitzeko jarduketan jarraipen eta kontrolean.
- Lurraldeetan Zonalde Burutzen arteko koordinazioa hobetzeko prozedurak ezartzea.
- Kudeaketa-sistema eguneratzea Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko eta UNE ISO 9001: 2015 araura egokitzeko. Horretarako egingo da:
 - Azpiprozesuen izendapen eta sailkapenak berrikustea, eta Ikuskaritzaren helburuetarako funtzezkoak direnak aukeratzea. Funtzeko azpiprozesuen arrisku-azterketa.
 - Funtzezko azpiprozesuen jarduketan kontrola, fluxuak eta dokumentazioa eguneratzea.
 - Ikuskaritzaren Atari berriaren finkatu eta garatzea
 - Ikuskaritzaren aplikazio informatikoan (V-92) Ikuskaritzaren jarduerak mailaka gehitzea.

- Ikuskaritzaren jarduerak garatzea Kudeaketa Aurreratua (Euskalit) fundazioaren eragile laguntzaile bezala.
- Kalitate kudeaketa-sisteman sakontzea, Kudeaketa Aurreratuaren Eredurantz aurrera eginez.
- Barruko (bai horizontala, bai bertikala) zein kanpoko komunikazioa hobetzea.
- Prozesuen Mapa berriaren eta Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren, V92, egituraren arteko sinkronizazioa.
- Saileko arduradunei Ikuskaritzako LEPen deialdia eskatzea
- Plaza hutsak betetzeko deialdiak eta hautagaien zerrendak egitea Ikuskaritzako lanpostuak beteko direla ziurtatzeko.

3.12. Ikuskari-lanaren ebaluazioa

Gaur egungo ebaluazio-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritzaren ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuan definituta dago eta ikuskari-lana betetzeko beharrezkoak diren kompetentzia tekniko-profesionalak, sozialak eta etiko-profesionalak erreferenteak izanik.

Ebaluazio horren ikuspuntutik, EAEko hezkuntza ikuskaritzako zerbitzuaren hobekuntzak alderdi bikoitza dauka:

- Ikuskaritza zerbitzuan lan egiten dutenen banakako ebaluazioaren ondorioz gertatzen den hobekuntza.
- Ikuskaritzaren partaide guztien ebaluazioaren emaitzak izan ondoren, eta, horren ondorioz, zerbitzu osoaren hobekuntza-alderdiak eta indarguneak detektatu ondoren, zerbitzuaren hobekuntza

Halaber, aipatutako dekretuak esaten du zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskarien luzapena egin duten lanaren aldeko ebaluazioaren arabera izango dela; horregatik, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan dauden pertsonen ebaluazioa egiten jarraituko da, luzapena lortu izateko beharrezko baldintza gisa. Zerbitzu osoaren gainerakoen ebaluazioa egiten ere jarraituko da.

Ondoko jarduera hauek egingo dira:

- Zerbitzu-eginkizunetako ikuskariei ebaluazio-prozedura ezartzea
- Ikuskari-lanaren ahalmen-matriza eguneratzea

3.13. Bestelako erakundeekiko lankidetzeta eta Europako eremuan sakontzea

Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen bitartean, lan-kompetentziak areagotzeko asmoz, Hezkuntzako Ikuskaritzaren Europako eremua indartzea sustatuko da. Horretarako ondoko jarduera hauek egingo dira:

- SICI-n (*Standing International Conference of Inspectorates*) sartzeko eskaria egitea. Hori kolaborazio-erakunde bat da, non Europar Batasuneko herri eta herrialdeetako Hezkuntza ikuskariak elkartzen diren.
- Ekitaldi nazional zein nazioartekoetan parte hartzea.
- Erasmus+ programako K2A ekintzetan geroko parte hartzeari begira, izan litezkeen kideekin kontaktuak egiteko prozesu berria hastea.
- Beste herrialdeetako eta irakaskuntza-sektoreetako kideekiko lankidetzan sakontzea.
- Pedagogia-prestakuntzarekin eta irakaskuntza-ikerketarekin harremana duten beste hezkuntza ikuskaritza eta erakunde batzuekin informazioa trukatzeko: Unibertsitateak, ISEI-IVEI ...
- Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekiko lankidetzeta-jarduerak garatzea

3.14. Berrikuntzaren zaintza

Etorkizun-sena erabiliz, ikuskaritzaren funtzioetan aurrera egiteko, joera pedagogiko, teknologiko, etab. berriei arreta berezia jarri behar zaie. Helburu hori lortzeko, Lurraldean arteko Koordinazio Batzordearen kideek osatutako lan-talde baten jarduera sustatuko da. Honako hauetan zehazten da:

- Iturri nazional eta nazioartekoetatik ekarritako ekarpen eta ideia berritzaileak jasotzea.
- Ekarpen eta ideia horiek aztertzea, erabakiak hartzen eta erakundean eta garatzen duen aktibitatean aplikatzen laguntzeko.
- Antzeko ezaugarriak dituzten beste erakunde batzuekin konparazioak egitea.
- Arriskuak eta aukerak identifikatzea.

Oinarrizko jarduera-lerro horien garapena, ahal den neurrian, informazio nahikoa eskaintzen duten lagin-jarduketan bitartez garatu da, edota zenbait oinarrizko kontrol gidalerri ekiteko lan-talde bereziak sortuko dira.

4.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

Hezkuntza Ikuskaritzaren Kalitate-kudeaketarako Sistemari erantzuna eman eta Hirurteko Plan Orokorrean zehazten diren makroprozesuak ondoko hauek dira:

- MP 01.- Estrategia planifikatzea eta antolatzea.
- MP 02.- Identifikazioa eta zerbitzuak ematea.
- MP 03.- Giza baliabideak kudeatzea.
- MP 04.- Dokumentuak kudeatzea.
- MP 05.- Baliabide materialak kudeatzea
- MP 06.- Neurtzea, analizatzea eta hobetzea.

Zerbitzu-prestazioaren prozesuak MP 02, "Identifikazioa eta zerbitzuak ematea" Makroprozesuaren bidez garatuko dira, zerbitzuaren arrazoi nagusia baita, eta horren lanaren helburu nagusia. Makroprozesu horren barruan dauden prozesuak zenbait azpiprozesutan banatzen dira, Hezkuntza Ikuskaritzak ematen dituen zerbitzuen arabera edo kasu bakoitzean atenditu nahi duten zerbitzuaren hartzailearen arabera.

MP 02, "Identifikazioa eta zerbitzuak ematea" Makroprozesuaren barruan ondoko 4 prozesu hauek sartzen dira:

- PR Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea
Nagusiki, ikastetxeen edota pertsonen ebaluazioarekin harremana duten azpiprozesuak, ikastetxeen hobekuntza-beharrak zehazteko erabiliko direnak. Azpiprozesu horiek urteko planetako hobekuntza-helburuetan islatuko dira eta Ikuskaritzak egingo du txostena. Txosten horien emaitzak helaraziko zaizkie bai administrazioari edo interesdunei.
- PR Arau kontrola/ Eskubideak eta eginbeharrak bermatzea
Hezkuntza-komunitatearen kide guztien eginbeharrak bete eta eskubideak erabiltzeko bermarekin harremana duten azpiprozesuak; horretarako, arautegia kontrolatu eta bete beharko da: tituluak, eskola ordutegia eta egutegia. Baita hezkuntza-premia espezifikoei erantzutea, ikasleen eta irakasleen absentismoa kontrolatzea, etab. ere. Halaber, Hezkuntza Ikuskaritzara iristen diren eskariei eta jakinarazpenei modu eraginkorrean erantzuteko beharrezko diren jarduketak sartuko dira prozesu honetan.

- PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza
Ikastetxeetan elkarbizitzaren hobekuntzarekin harremana duten azpiprozesuak. Horien barruan: elkarbizitza-planak egiteko laguntza eta kontrola, eskola-jazarpeneko kasuen jarraipena, portaera zuzentzeko prozedurak, ikastetxe publikoetako langileen aurkako erasoak, edo funtzionario publikoen zentzapide-errejimena, babesgabetasun-egoeretarako protokoloa.
- PR Programak jarraitzea. Sistemaren helburuak
Berariazko programen jarraipenarekin harremana duten azpiprozesuak dira. Programa horiek bai Lanbide Heziketarako Sailburuordetzatik (Ethazi, ikas-ekinezko erregimeneko heziketa duala), bai Hezkuntza Sailburuordetzatik (Hauspoa, Hamaika Esku, Bizikasi, Irakurle Programa, prestakuntza-ekimen globala, Hezkidetzarako eta genero-indarkeria prebenitzeko Gidaplana, etab.) jartzen dira martxan ikastetxeek hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko modu eraginkorrean laguntzeko helburuarekin.

Prozesu horiekin batera, Hezkuntza ikuskaritzak administrazioarekin lankidetzako jarduerak egingo ditu. Horretarako, Hezkuntza Saileko beste unitate batzuen ardurapean, zenbait prozeduretan parte hartuko du.

Jarduera horiek honela sailkatuko ditugu:

- 1) Lankidetzak eskakizunei erantzuteko jarduerak. Horien konplexutasunagatik beharrezkoa izango da ikuskaritzak berak jarduerak definitzea eta planifikatzea beste azpiprozesuekin egiten duen moduan.
- 2) Hezkuntza Saileko arduradunek eskatzen dituzten txostenen eskaerei erantzuteko jarduerak. Atal honetan, ikuskaritzak zerbitzuko edozein erabiltzailek eska ditzakeen txostenak edo ikuskaritzak berak eskatutakoak sartzen dira, edota ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jarduren ondorioz sor litezkeenak.
- 3) Lankidetzak eta parte-hartze eskakizunei erantzuteko jarduerak, non jabea ez den ikuskaritza (epaimahaietan, komisioetan... parte-hartzea).

Ikuskaritzaren kudeaketa-sisteman integratutako prozesuak Urteko Planetan gauzatzen diren azpiprozesuetan banatzen dira. Azpiprozesu horiek ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzak-funtzioen arabera egon dira sailkatuta eta kodifikatuta. Hala ere, gogoeta estrategikoaren ondorioz, prozesuen mapa berriari egokitzeko sailkapen eta kodifikazio hori aldatzea erabaki da. Horregatik, Hirurteko Plan Orokor honen iraunaldian gaurkotu egingo dira, ondoko pauso hauei jarraituz:

- 1) Erakundeak UNE EN ISO 9001:2015 arau berrira egokitzeko egin behar duen aldaketa aprobetxatuta, azpiprozesu bakoitzaren balioespenaren azterketa egingo da, haien kopurua gutxitzeko asmoz, xedean adierazitako helburuekin lotutako balioa eransten dioten azpiprozesuek iraun dezaten. Egun dauden gainerako azpiprozesuek jardueraz-zerrenda bat osatuko dute eta ikuskaritzaren informazio dokumentatua osatuko du, baina prozesuen mapatik kanpo.
- 2) Indarrean dauden azpiprozesuak dagokien prozesuetan sailkatuko dira.
- 3) Azpiprozesuen talde arduradunek azpiprozesu bakoitzeko arriskuen azterketa egingo dute, haien indarretan sakontzeko eta aukerak aprobetxatzeko helburuarekin.
- 4) Kalitate Batzordeak Kalitatearen Eskuliburua eguneratu beharko du emaitzaren arabera.

Kontuan hartuta azken ikasturteetan azpiprozesuak gehitu direla Hezkuntza Ikuskaritzaren zereginetara eta jarduketa gehienak aplikazio informatikotik eratzen eta krontrolatzen direla, ausnarketa egin behar dugu osagarri gisa barneko weba duen zereginaz eta haren dokumentazio guztia errebisatu behar da aplikazio informatikoan dagoenarekin koherentea izan dadin. Lan hori Kalitate Batzordeak egin beharko du ikasturte honetan.

5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

2017-2018 ikasturteko Ikuskaritzaren Prestakuntza Planak, IV. eranskinean jaso da, prestakuntza-saio batzuk aurreikusten ditu urteko planetan esku hartzeko oinarrizko ildo batzuei buruz. 2016-2017ko asebeste-inkestan prestakuntza-premiei buruz jasotzen denari lehentasunez erantzungo zaio: ikastetxeetako ebaluazioarekin eta esku hartzearekin erlazioatutako alderdiak, aplikazio informatikoak, arauen eguneratzeak eta zuzenbide-eguneratzeak.

Ikasturte honetan, honako jarduera hauek egingo dira:

- Informazio eta prestakuntza saio batzuk antolatzea urteko planetan esku hartzeko ildoekin zuzen erlazioatutako alderdiei buruz, ikastetxeetako ebaluazioarekin eta esku hartzearekin erlazioatutako alderdietan arreta berezia jarrita.
- Aldian behingo prestakuntza praktikoa, hala ikuskarientzat nola administratiboentzat, ikuskaritzak lanean erabiltzen dituen aplikazio informatikoei buruz.

Urteko Plan honen IV. eranskinean adierazita daude Prestakuntza Planaren jarduerak.

6.- I IKASTETXEAK KUSKARIEI ESLEITZEA

